

Bidaia

M

etalezko kriskitin-hotsa egin du pote sideralaren bozinak, zebrabidetik hurbil.

Lurra hartu nahi du martiztar herrenak. Fereka apal batekin. Hautsak harrotu barik. Gozo.

Animali iletsuek hizketan zekiten garaikoa da ipuin hau.

Saiatu, saiatu da gainerako ibilgailuen azalak ez urratzen. TAO gunean aparkatu du estralurtarrak. Txukun, berak hala uste. Aldiz, espaloitik, ezetz egiten dute larruzko berokian bilduriko banku bulegariak eta limoi koloreko gona daraman eskola irakasleak.

Kapsulatik atera zedin, makilak hurbildu dizkio Inaziok atzerritarrari, eta eskerrak: makulu bizkorren beharrean baitago etorri berria, Itxarok eta Angelek gidatzen duten asteroide horiaren itzal gorriari segitzeko.

* * *

Bidaia da idaztea. Begi-kolpe batez, aparte daudenak hurbiltzea. Bidaiak bidaia, besteren itzulia da askotan norberarentzat txango. Akor du lausoan gordeko duzu zuk zeuk ere nola zio-tsan Aristotelesek Nikomanori “ezen bidaietan zeinen ongi ikus daitekeen zein hurbila eta laguna den gizaki oro gizakientzat”.

Mexikotik egin du ostera Itxarok. Horren biribil gertatu al zaizu DF? Ba al da lagun xalorik han, berunezko kale-kantoietan, ala, diotenez, polizia beldurgarria besterik ez? Arto berdezko lautadan zehar Zapata zeraman trenan, zutik al dago oraindik, Kapitolio hitsaren ondoan? Eta, barkatu, baina, Frida Kahlo ikusi al duzu, bere paleta turkesarekin? Astirik izan al duzu Diego Rivera ikusteko, eta miresteko nola eusten dion zurdaki gorriari?

Lagunen osterak, beti dira norberarentzat joan-etorri.

Gogoratzen al duzu, Angel, nola zioen Montagnek bidaia luze izan arren, ez zegoela ondorioztatzerik bidaiaren luzeak urruntasun handia esan nahi zuenik? Ez espaziozkoa ezta denborazkoa ere, urruntasuna.



J. I. Basterrutxea

Borda

Errro

Zeren, lagun-afaritik, arre-baren epeletik edo lumazko armairutik norberaren txokora itzultzean, gau luzez igurikatutako giza legea aurkitu ahal du inork, opari gisa, ohe azpiko zapatiletan bilduta eta gordeta?

Zeren, bidaiak bidaia, batzuetan ematen du denak segitu nahi izaten duela hormazko eta harrizko. Hutsalean iraunkor. Tabuek eta debekuek betierekotasun itxura hartzen baitute. Zeren, etxera bueltan, inork ez baitu benetan astindu gura izaten alfonbra. Kabia bertan egin duten apoak eta sugeak airera bitez.

* * *

Mediku-bista egin du martiztar herrenak. Dendarik denda eta liburutegiz liburutegi ibili ostean, hartu behar zituen apurrak hartuta, badoa berriz ere. Altzairuzko oihanetara etorri da, beirazko banbu lodiak, oskol orbainduak eta lastozko laboreak etxeratzeko. Lévi-Straussek deskribatu zituen indiar haien bertsio modernoan.

Zebrabidetik hur, gizon urdina dago kapsula sideralari begira. Taloitegia hartu du hark eskuan, baina ez dio matrikula zenbakia aurkitzen gailuari.

Aireratu beharra du martiztarrak, isuna saiheste aldera. Makuluak tolestu ditu. Abian da, tipulazko orbitarantz.

Eta, hegaldatu denean, berunezko ortzian, pare parean hartu du Rudolf von Moreau, haren *Heinkel 111* delako hegazkina-ren kontrol gailuetara. Keinu egin dio eskuadrilla buruak eskuarekin, leihatilatik. Ez dio hasieran ulertu. Gero bai: sei lehergailu omen daramatza.

Keinuka segitu du pilotuak, baina ezin gehiagorik ulertu. Ezpainetara egin dio so, arreta handiz. *Banhof*, esaten du von Moreauk; “geltokia”, argi eta klarki.

Eta, denboraren ezintasunean, erloju-egutegiari begiratzen dio martiztar herrenak: hogeita zazpi ditu apirilak, astelehena da.

Pazko-egunak itzalita, urazak minduko dira Gernikako ferian. ■

Bidaiak bidaia, batzuetan ematen du denak segitu nahi izaten duela hormazko eta harrizko. Hutsalean iraunkor. Tabuek eta debekuek betierekotasun itxura hartzen baitute. Etxera bueltan, inork ez baitu benetan astindu gura izaten alfonbra